

Kultur agenda

Urriak 3 ostirala
Urriak 12 igandea

Udazkenean Folk



Ostegunean hasi zen XIX. Udazkenean Folk musika jaialdia. Ostiralean, hilak 3, Maurice El Medioni piano jotzaile aljeriarrak eskainiko du kontzertua. El Medioni-k Aljeriako Oran hiriko kafetegietan, XX. mende erdialdean jo ohi zuten musika dakarkigu. Bestalde, larunbatean, hilak 4, Martin Hayes biolin jole eta Dennis Cachill gitarra jole irlandarren txanda izango da. Bi musikariok 1980etik ari dira elkarrekin lanean, eta bi disko kaleratu dituzte. Emanaldiak Egiako Gazteszena aretoan dira, 20.30ean.

Doinu gogorrak Aitzan



"Etengabeko Zartatia Jaialdia" ostiralean eta larunbate-

an egingo da Altza kultur etxean (Larratxo pasealekua 55). Euskal Herritik zein Espainiatik etorritako hainbat hardcore taldek joko dute jaialdian. Donostiako taldeei dago-kienez, "Squasamento" ariko da os-

tiralean, eta Ira et Decessus larunbatean. Ostiraleko emanaldiak 21.00etan hasiko dira, eta larunbatekoak, berriz, 19.30ean.

Kurosawa nosferatun

Urriaren 8tik abenduaren 17a arte, Akira Kurosawaren film sorta eskainiko dute Nosferatu programazioaren barruan. Kurosawa Japoniako zinegile entzutetsuena da, eta Nosferatun, besteak beste, bere maisulanik handienetakoa den "Rashomon" ikusi ahalko da. Nabarmentzekoa da, bestalde, urriaren 15eko eta azaroaren 26ko filmeak jatorrizko hizkuntz bertsioan eta euskaraz azpigitulaturik emango direla. Lehen proiektzioa urriaren 8an izango da, "Kagemusha" filma eskainiko da, hain zuzen. Emanaldiak Antzoki Zaharrean izango dira, 20.15ean.



Bolero abeslari Xelebreak



"18 boleros chulos". Hauxe da hilaren 6an, astelehena, Kurasaalean egingo den ikuskizunaren izena. Pablo Carbonell, El Gran Wyoming, Santiago Segura, Javier Krahe eta Pepin Tre umoregileek hainbat bolero klasiko askoz ere surrealistagoak diren beste batzuekin uztartuko dituzte. Emanaldia 20.00etan hasiko da.

